

"Bai"-"ez" esateko talenturik ez

El Mundo del País Vasco.

Jaurlearitza berrian, PSOEko bost gizonen hitz eman dute bere karguak "zintzo eta leialki" beteko dituztela, eta bostak gaztelera. Eska dezakegu, nik uste, gure agintari nagusiei herri honen jatorriko hizkuntza ofizialagan errespeto minimoa. Mailak daude, herri-zerbitzuko beste sailetan bezala, baina hizkuntzaz ari gara, gaia hala datorkigulako. Euskararik ez hitzegiteko, hizkuntzaren zailtasuna dute aitzaki, baina euskaraz "bai" edo "ez" esatea ez da ezina, erantzuna haur erdaldun baten ahalbidean sartzen da eta: ez ditu honen ezertara behartzen, formula honek hainbesteko esangurarik ez duelako; ez ditu bere gaztelaren ukamenera behartzen ere; bestalde, euskaraz erantzuteak ez dio inori politika edo kultura aldetik inolako konpromezurik ezartzen, eta bere jarrerarekin, aitzitik, herri honetan jaio edo bizi eta gaztelera bakarra eta maitea duen politikaria aberastu egingo luke, herriagandik errespetoa irabaziko. Baina, honen ordez, herri honi gizaldiz gizaldi indarkeriaz ezarri zaion keria berarekin Eusko Jaurlearitzaganako jite harroa markatu nahi dutela dirudi. Ezagutu dugu euskal kulturaganako kidetasuna erakutsi duen PSE-PSOEko gizonik; adibidez, eibartarrak, eta hemen don Toribio Etxebarria maitasunean nagusi. Lan egin dugu beraiekin gizalegez herritar bezala begiramen handiz. Gaur aipa nahi izan dugun kontseilarietako bosteko honen jarreran ez dago euskaldunik, ezta euskeraganako *bai, ez*, esateko begirunea eta duintasun apur bat erakutsi duenik ere. Demokratak izango dira, eta hizkuntzen eskubideak ezagutuko dituzte teoriarik, agian, baina ez dute gure herriko elkarbizitzarako behar den bihotzik eta talenturik ere azaldu. Ez dutelako, seguraski.